ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2026ko urriak 30 · 1414 zenbakia

GABA-BELTZEAN IKARA NAGUSI

URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua
ETORRI. ESERI.
AURKITU ZURE
SOFA

AZPEITIA • Arretxe 9
EIBAR • Arragueta 27
EIBAR • Arragueta 20
www.urrategiinteriorismo.com



Neinor HOMES

ARRATE HOMES · EIBAR

Estreinatu zure

ETXEA OPARI BATEKIN

Zure etxebizitza erostearekin batera,
El Corte Ingleseko

3.000 €-ko * opari-txartela

*Kontsultatu legezko oinarriak. Promozio hau eroskete bereziarako soilik da baliodun.

Etxebizitza berriak **EIBARREN**

Gourmet aretoa · Gimnasio homitua · Garajea · Trastelekua

Aprobetxatu ESKAINTZA MUGATU hau amaitu baino lehen

900 11 00 22 · **neinorhomes.com**



Eskatu zure saskia
eta eman **%25**
Nafarroa erdi
eta hegoaldeko
euskalgintzari



Saski beltza 60€

Saski berdea 65€





Saski gorria 75€

+ osagarria: **"euskararen haziak ereiten" egutegia** 10€



Jarrai iezaguzu!



Euskaraz hitz egin nahi duzu, baina ez daukazu norekin? BERBETAN programak euskaraz praktikatzeko aukera eskaintzen du, giro lasai eta informalean. Eman pausoa eta hasi euskaraz berbetan!
Informazio gehiago: etakitto.eus.

BIDEOAK YouTuben ikusgai

www.etakitto.eus

eta kitto! euskara elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA
Naiara Esnaola
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINU ARLOA
Irune Jaio
JATORRIZKO DISEINUA
Maku Oruezabal
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Ander Fernandez
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Irune Jaio, AArekin moldatua.
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabideak

Eskutitzak

Feria medieval

Astebururako **Feria Medieval** edo horrelako apelatiboa dakarren festa edo ospatzekoa da gure hirian. Nik ez dakit ongi nabilen baina jai hauek arrotzak egiten dira euskaldun batentzat. Izan ere, beroietan gaztelania izaten da hizkuntza ardatza, formaz eta edukiz, (oraingoan badirudi euskarari zertxobait eskaintzen zaiola; ez al da hutsaren hurrengoa izango!). Bitxia da, ospakizun hauek medieval hitza dakarte baina Erdi Aroan ez zen gaztelania hizkuntza nagusia, kalean, alegia. Penintsulako hizkera ugari baitziren erabiliak: bablea, aragoiera, asturianoa, astur-leonesa, errioxera, galegoa, katalana, euskara, noski eta abar eta abar. Dioguna, festa hauetan, orain arte horrela izan da, poztuko ginateke bestelakoa bada enfokea, **gaztelaniaren supremazismoa** nabaria izaten da gainerako mintzo eta ohiturak desagertuak edo bigarren edo hirugarren mailako adierazpide agertzen direla.

Eibarko udalak ohituak gauzka horrelakoak egiten. Azkeneko umorezko antzezlanekin gertatu zen bezala. Edozenbat emankizun prestatu zituen non euskararen usainik ere ez zen bertan inon ikusten. Eta horrela doa bizitza. Aurrera baino atzera nabarmen goaz. *Paisaje linguistico* delako horretan esaterako. Duela zenbait urte txintxo-txintxo betetzen zen errotulo eta abarretan elebitasuna. Gaur egun, urruti gaude intentziotan. Ez dago ikustea baino denda eta jendearen aurreko lokaletan euskarak zelan egin duen nabarmen **atzera**. Berriki, hortz klinika bat zabaldu da non hitzik ere ez den agertzen euskaraz euren kale alderako errotulazioan, behintzat. Beste askok ere ahaztu egin dute nonbait euskaraz ezer jartzen. **Deseuskalduntzea** nagusi da Eibarren. Horretaz aspaldi konturatu ziren arabieraz mintzatzen diren dendak. Gaztelania eta euren hizkuntza, horiek dituzte euren hormetan. Zertako euskaraz? Inon entzuten da euskara herri malapartatu honetan? Hori bai: Rialto aurrean jarri duten arrandegian magrebiarrek errotuluari euskal izen bat erantsi diote. Ze sinpatikoak!!

Antxon Narbaiza

Hortik esanak

«Soldadito español, soldadito valiente, el orgullo del sol es besarte la frente» (soldadutxo espainiar, soldadutxo ausart, zuri bekokian musu ematea da eguzkiaren harrotasuna) dio La bola negra pelikulako soinu-bandako abestiak.

Jende pila bat Instagram-en abesti horren jatorria inondik inora ezagutu gabe haren bertsioa egiten ari da. Ederra delako, Judeline-ren fan-ak direlako, edo hitzak bere egiten dituztelako. Testuinguru berri bat eman dioten abesti bat da, espainiar harrotasunari beste zentzu batean abestu nahi diona. Baina espainiar nazionalismoa beti izango da zapaltzailea. Zalantzan jarri nahiko nuke, beraz, ez ote ginatekeen doinu antifaxistak berreskuratzen hasi beharko, faxistak berrinterpretatzen baino. Bestela, Sol-eko kanpaldiari erasotzera doazenek eta guk abesti berak abesten amaituko dugu, eta hori porrot totala litzateke.

Kattalin Barcena, *Berria* egunkaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PURRUST. ➜ Derrepenteko barre zarataren onomatopeia. “Txistia kontau orduko, purrust! hasi eta negarrez amaittu”.

PURRUSTADA. ➜ Barre-algararen onomatopeia. “Ezin izan netsan barriari eutsi eta purrustadiak urten zestan”.

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 30
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

ZAPATUA 31
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

DOMEKA 1
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 2
EGUNEZ | Barandela (Ziriako Agirre, 4)

MARTITZENA 3
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

EGUAZTENA 4
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

EGUENA 5
EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola, 18)

BARIXAKUA 6
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Diego Amarilla Garcia.** 91 urte. 2026-10-22.
- **Emerita Penedo Silvares.** 91 urte. 2026-10-23.
- **Jesus Mari Garcia Alegria.** 83 urte. 2026-10-24.
- **Celsa Tejera Blanco.** 82 urte. 2026-10-24.
- **Kontxita Basauri Arteaga.** 95 urte. 2026-10-25.
- **Yolanda Fernandez Muniozguren.** 72 urte. 2026-10-26.
- **Lali Garcia-Abad Gutierrez.** 89 urte. 2026-10-27.
- **Jose Agustin Larrañaga Lejardi.** 92 urte. 2026-10-27.
- **Luis Iglesias Rodriguez.** 92 urte. 2026-10-27.
- **Ines Benitez Fedriani.** 71 urte. 2026-10-27.
- **Maria Solozabal Arriaga.** 92 urte. 2026-10-27.



Eibarko EH Bildu eraikinaren erabilera publikoaren alde agertu da, baina koalizioaren arabera, horrek ez du justifikatzen erosketa edozein baldintzatan egitea. SILBIA HERNANDEZ

El Corte Inglés eraikina proiektu zehatz barik erostea kritikatu du Bilduk

Eibarko EH Bilduk kritikatu egin du PSE-EEk eta EAJ-PNVk El Corte Inglés eraikina erosteko lortutako akordioa. Koalizioaren arabera, PSEren hiri-ereduaren porrotak erabilerarik gabeko eraikin erraldoia utzi du erdigunean, eta orain Udalak bere gain hartuko ditu urteetako politika horien ondorioak, zorpetzearen bidez. Halaber, PSEk aldarrikatzen zuen Eibar Merkataritza Gune Irekia gaur egun "porrot ikaragarria" dela adierazi dute.

SILBIA HERNANDEZ

Eibarko EH Bilduren ustez, udal gobernua inprobisatzen ari da, ez baitu eraikinaren etorkizunerako proiektu integralik aurkeztu: "Lehenik erostea erabaki dute, eta ondoren ari dira erabilerak bilatzen".

Koalizioak, gainera, salatu du oposizioko taldeei dokumentazio osoa aztertzeko hamar egun besterik ez dizkietela eman, eta erosketa-asmoaren berri albistea publiko egin baino ordubete lehenago izan zutela. Horren bidez, EH Bilduk ordezkatzen dituen milaka herritarrekiko bazterkeria gertatu dela adierazi dute.

Erabilerak, kostu osoa, mantentze-gastuak, finantzaketa, eta herritarrentzako onurak zehaztea eskatu diote udal gobernu taldeari

Kostu ekonomikoarekin ere kezkatuta daude. Erosketa bederatzi milioi euro ingurukoa izango da, baina BEZa, finantzaketa-interesak, egokitzapen-obrak eta mantentze-gastuak gehituta, konpromisoa hamaika milioi eurotik gorakoa izango dela ohartarazi dute. Errebalen esperientzia aipatu dute, planifikazio eskasak ondorio larriak izan ditzakeela gogorarazteko, eta dirulaguntzek ez dutela inbertsioa justifikatzen proiektua Eibarren benetako beharretara egokitzen ez bada.

EH Bilduk argi du eraikinari irtenbidea eman behar zaiola: 60.000 metro koadro eta 700 autorentzako aparkalekua dituen espazioak ezin du erdigunean erabilerarik gabe jarraitu. Erosketaren alde egon daitezkeela adierazi dute, baina bermeak eta plan sendoa eskatu dituzte.

Era berean, ohartarazi dute inbertsioak datozen urteetako udal aurrekontuetan izan dezakeen eraginaz, besteak beste, etxebizitza, auzoen eraberritzea, kirol-instalazioak, kultura, garbiketa, mugikortasuna, espazio publikoaren mantenua eta industria-plana bezalako arloetan.

Horregatik, proiektu osoa aurkezteko eskatu diote udal gobernuari, eraikinaren erabilerak, kostu osoa, mantentze-gastuak, finantzaketa eta herritarrentzako onurak zehaztuta.

Azkenik, eraikinaren erabilera publikoaren alde agertu dira, baina ohartarazi dute horrek ez duela erosketa edozein baldintzatan justifikatzen. "Eibarrek plangintza, gardentasuna eta diru publikoaren kudeaketa arduratsua behar ditu", azpimarratu dute.



Jon Iraolak alkate izateko hautagaitza aurkeztuko du 2027ko udal hauteskundeetan

S.H. Jon Iraola Eibarko alkatea PSE-EEren hautagaia izango da berriro 2027ko udal hauteskundeetan. Iraolak datozen lau urteetarako proposamenen berri eman du, eta segurtasuna, etxebizitza, irisgarritasuna eta gazteen beharrak aipatu ditu lehentasunen artean.

Etxebizitzaren arloan, Txontan babes ofizialeko 200 etxebizitza eraikitzea, eta Bittor Sarasketan eta AIBEn gazteentzako 60 bat etxebizitza egitea aurreikusten du. Horrez gain, Lapeyra eraikina (Barrenan) etxebizitza bihurtzea, eta laster entregatuko diren Egazelaiko 36 etxebizitzak aipatu ditu. Iraolak adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin elkarlanean jarraitu nahi dute, gazteek Eibarren etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten.

Segurtasunari dagokionez, udalerriko datuek azken urtean hobera egin dutela eta, orain arte hartutako neurriekin jarraitzearen alde agertu da. Irisgarritasuna hobetzeko, hainbat igogailu berri jartzea aurreikusten du, besteak beste, Jardiñeta, Mekola, Sautsi, Ego Gain-Isasi eta Torrekuan.

Hiria eraldatzeko egitasmoen artean, Ipuruan igerileku berriak egitea, Matsaria berroneratzea eta zezen-plazaren inguruan esku hartzea aipatu ditu. Eta El Corte Inglés eraikina erosteko akordioa ere izan du hizpide. Azken urteetan egindakoen artean, Gabilondo lantegiaren birgaitzea, Estaziño-Azitain trenbide gaineko pasealekua, Arragueta, Bustinduitarren eta Mutiola kaleetako berrurbanizazio- lanak, eta Torrekuako gizarte-zentro berria nabarmendu ditu.

Errigoraren saskiak eskatzeko epea zabalik, azaroaren 12ra arte

S.H. Errigorak *Euskarari puzka* udazkeneko kanpaina abiatu du, Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko euskalgintza eta lehen sektorea indartzeko helburuarekin. Azaroaren 12ra arte, eskualde horretako produktuekin osatutako saskiak eskatu ahal izango dira, errigora.eus webgunean. Eta banaketa azaroaren amaieran edo abenduaren hasieran egingo dute, erosle bakoitzak aukeratutako herriko bilketagunean eta ordutegian.

Bi otar zozketatuko ditugu

Auzolanean euskara sustraitik espaziora da kanpainaren leloa eta, beste batzuetan bezala, ...eta kitto! eta Errigoraren eskutik, bi otarren zozketan parte hartzeko aukera izango duzue, azaroaren 10era arte. Horretarako, ...eta kitto!-ren webgunean sartu, eta bertan aurkituko duzuen formularioa bete, ez da besterik egin behar.



ek!
Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

PUBLI RESA
osagarrien personalizazioa
merchandising serigrafia lanerako erropa
www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667
Armagin 3-5 beheak
publiresa@publiresa.com

Kinto-jai ugari ospatu dira urrian

Aurten ere urte berean jaiotako eibartarrek elkartzeko eta urtebetetzeak elkarrekin ospatzeko aukera izan dute urrian. Adin bereko lagunek mahaiaren bueltan bildu dira, oroitzapenak partekatu eta urteetan zehar sortutako harremanei eusteko.



1945ean jaiotakoak (*Gran Reserva*).



1951n jaiotakoak.



1946an jaiotakoak.



1966an jaiotakoek zapatuan, urriaren 24an ospatu zituzten 60 urteak .



EAJ-PNVk herri barruan ibilgailuen joan-etorriak murriztea eta trafiko arauak zorrotzago kontrolatzea proposatu du

S.H. Eva Juez eta Alberto de la Hoz Eibarko EAJ-PNVko udal ordezkariek barixakuan egindako prentsaurrekoan adierazi dutenez, jeltzaleek herritarren segurtasuna eta bide segurtasuna batera landuko dituen plan integral bat defendatzen dute, hiriguneko trafikoa murrizteko, udal araudia eguneratzeko eta oinezkoen, bizikleten eta ibilgailuen arteko bizikidetza hobetzeko neurriekin.

Jeltzaleen ustez, segurtasunak plangintza integrala eskatzen du: "Pertsonen segurtasunak lehentasuna izan behar du arlo guztietan. Ez gara delituak prebenitzeaz bakarrik ari, baita gure kaleetan lasai ibiltzeaz, trafikoaren arriskuak murrizteaz, eta oinezkoen eta ibilgailuen arteko bizikidetza segurua bermatzeaz ere".

Jeltzaleen proposamenaren ardatz nagusietako bat Eibarko mugikortasun eredua pixkanaka eraldatzea da, herri barruko trafikoa murrizteko. Horretarako, saihesbidearekin ondo lotutako kanpoaldeko aparkalekuen eredua indartzea proposatu dute, ibilgailuak erdigunera alferrik sartzea eta bertatik igarotzea saihesteko. Ildo horretan, Jardiñetako eta Legarreko aparkalekuen garrantzia nabarmendu dute, baita etorkizunean El Corte Inglés-eko eraikinean aurreikusita dauden 700 plazena ere: "Jendeari automobila ahalik eta gutxien erabiltzea eskatzen badiogu, non aparkatu ere eskaini beharko zaio".

Geltokia Estaziño-Matsarian

Hala ere, EAJ-PNVren apustu estrategiko nagusia Estaziño-Matsaria inguruan geltoki intermodal bat eraikitzea da. Jeltzaleen iritziz, proiektu hori funtsezkoa da Eibarko mugikortasuna eraldatzeko eta bide segurtasuna hobetzeko. Horrez gain, udal bide sareko arrisku guneak berrikustea eta argiztapen eskasa duten eremuak hobetzea proposatu dute. Azkenik, erabat zaharkituta dagoen trafiko ordenantza eguneratzea eskatu dute, patinete elektrikoen eta mugikortasun pertsonaleko beste ibilgailu batzuen erabilera arautzeko.

Eibarko Tokiko Energia Komunitateak 90 bazkiderentzat tokia dauka

S.H. Eibarko Tokiko Energia Komunitateak (TEK Eibar) bazkide egin nahi dutenentzat 90 plaza dauzka eta, bazkide berriak erakartzeko, informazio-hitzaldiak eta *Lagun Berria* kanpaina antolatu dituzte.

Proiektuak 200 bazkide dauzka. Portalea kultur etxeko eta Arrateko Andra Mari eta Amaña ikastetxeetako estalkietan instalatutako 364 eguzki-panelek etxebizitzei zein saltokiei energia berriztagarria kontsumitzeko aukera ematen diete, abantaila ugarirekin: etxeetan ez da instalaziorik egin behar, eta argindarra merkeagoa da. Horregatik herritarrak bazkide egitera animatu nahi dituzte.

Energia-komunitatearen funtzionamendua ezagutarazteko eta zalantzak argitzeko, hiru saio antolatu dituzte: azaroaren 9an, 13:30ean, online, saltokientzat; azaroaren 10ean, 18:30ean, aurrez aurrekoa, Coliseo antzokian; eta azaroaren 12an, 12:00etan, aurrez aurrekoa, Errebalen.

Horrekin batera, *Lagun Berria* kanpaina abiatu dute: dagoeneko bazkide direnek komunitatera bazkide berri bat erakarriz gero, hiru hilabeteko kuota doan izango dute biek. Informazio gehiago: www.tekeibar.eus, 900 859 695 telefonoa, edo info@tekeibar.



AMAÑAKO 2 GAZTE EGUNA



Hainbat gazte kuadrilla elkartu dituaurtengo Amañako Gazte Egunak. Joan den zapatuan, urriaren 24an, ospatu zuten bigarren edizioa, egun osoko egitarauarekin. Trikipoteoa, mus txapelketa, txokolatada eta kalejira egin zituzten arratsaldean, eta gauean, berriz, bokatak eta zuzeneko musika izan ziren protagonista. Emeka, Mutiko, Marmitako Trap Band eta Muxutruk taldeek girotu zuten gaua.












PATXARAN



Erdi Arora eramango gaituen azoka

Gaurtik domekara bitartean, Erdi Aroko Azoka Xacobea egingo da lehen aldiz Eibarren, As Burgas elkarteak eta Timbapirata Events-ek antolatuta. Untzagako plaza merkatuz, izaki fantastikoz eta ikuskizunez beteko da hiru egunez.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



Erdi Aroko giro berezian murgiltzeko aukera paregabea izango dugu gaurtik domekara arte, Untzagako bi aldeak hartuko dituen Erdi Aroko Azoka Xacobearekin. Ekimenak Galiziako ondare kulturala eta Erdi Aroko iruditeria konbinatzen ditu, Donejakue bideko giroa Eibarko erdigunera ekarriz.

Azokaren xehetasunak eta antolakuntzaren atzean dagoen lana gertutik ezagutzeko, Timbapirata Events enpresako Eva Fernandez mallabitarrarekin egon gara hizketan. Proiektu hau As Burgas elkartearen eta bere enpresaren arteko elkarlanetik sortu da. "As Burgas elkarteko kidea izan naiz urte askotan, baina azoketako lanagatik utzi egin nuen, eta Galiziako Etxeak Erdi Aroko azoka egiteko gogoa zuenean, nirekin gogoratu ziren hurbiltasunagatik", azaldu du Fernandezek.

Gisa honetako merkatu bat bideratzea hilabeteotako kudeaketa ikusezin baten emaitza da: "Udalari plana helaraztea, argindar puntuak zehaztea, 65 azokari baino gehiagorekin harremanetan jartzea eta lekua kudeatzea ez da erraza. Garrantzitsua da produktuak ez errepikatzea, dokumentazioa egiaztatzea eta publizitatea egitea irratian zein Interneten".

Fernandezen arabera, Xacobea izendapenak izaera propioa ematen dio Eibarko azokari: "Galiziako Etxeak



Erdi Aroko giroa izango du asteburuan Untzagan jarriko duten azokak. @TIMBAPIRATA_EVENTS

bere nortasuna erakutsi nahi zuen azokan, eta azoka Xacobearen bidez Erdi Aroko eta Galiziako tradizioak era ezin hobean fusionatu ditugu".

Fernandezen hitzetan, azoketan lan egitea kalean denda bat izatearen parekoa da: "Astebururo denda toki berri batera mugitzen dugu, eta horrek publiko berria ezagutzeko aukera ematen digu. Beti izaten dugu eguraldiaren erronka, baina ahaleginak fruitua ematen du plaza jendez betetzen denean".

Lau dragoi eta 65 postu

Zer aurkituko dute Untzagara gerturatzen direnek? Guztira 65 postu eta erakusketa-tailer inguru bilduko dira. Postuetan denetariko produktuak egongo dira salgai: gozogintza, zurezko jostailuak, artisau-xaboiak, bitxiak, dekorazioa... Horrez gain, zuzeneko tailerrek ikusmina piztuko dute: forja-lanak, zur-taila edo iruleak bertatik bertara ikusi ahal izango dira.

Gainera, azokako puntu izar nagusia lau dragoiak izango dira. Eva Fernandezek azaldu duenez, "hiru dragoi estatiko egongo dira argazkiak ateratzeko, eta laugarren dragoi bat azokan zehar ibiliko da". Erakusketen atalean, ostera, Erdi Aroko kanpalekua eta garai hartako tortura tresnen erakusketa historikoa jarriko dituzte. "Horrek atentzioa ematen du", diosku antolatzaileak.

Artisauen lana koordinatzea ezinbestekoa da eskaintza anitza izateko: "Produktuak ez errepikatzea da gure helburua, jendeak denetik aurkitu dezan, erroskilletatik hasita bitxietaraino". Tortura tresnen erakusketak ere jakin-min handia pizten du urtero.

Barixaku goizetik domeka iluntzera arte, Erdi Aroko Azoka egongo da Untzagan, As Burgas Galiziako Etxeak eta Timbapiratak antolatuta



Adin guztietarako ekintzak antolatu dituztela esan digu Eva Fernandezek, Timbapiratako arduradunak



Egitarau bizia egunero

Hiru egunetan zehar ez da aspertzeko astirik izango. Gaur, urriak 30, 11:00etan irekiko dituzte ateak eta tailerrak 12:00etan hasiko dira. Arratsaldean Celtika, Grus Grus eta Artimaña taldeek giroa alaituko dute. 21:30ean "El susurro de las llamas" su-ikuskizuna eskainiko dute, eta 22:00etan queimada herrikoi handia egongo da Celtikak girotuta.

Bihar, urriak 31, egun nagusietako bat izango da. 10:00etan Os Galaicos taldeak erromesen desfilea egingo du, eta 11:00etan inaugurazio-pregoia irakurriko dute Galiziako Etxeak eta Amalurrak. Egunean zehar kale-animazio ugari egongo da: armagin ibiltaria, Cuca elfa, Baom, Gzarkuk orkestra-gizona eta Sebastopoleko organo-jotzailea. Arratsaldean Os Galaicos taldearen musika eta dantzak egongo dira, 21:15ean suzko ikuskizuna eta 22:00etan berriz queimada herrikoia.

Domekan, azaroak 1, 11:00etan irekiko dituzte ateak. Egun osoan zehar ipuin-kontalariak, musika ibiltaria eta pertsonaia fantastikoak igaroko dira Untzagatik. Arratsaldean antzerki proposamenak egongo dira, eta 20:15ean amaierako su-ikuskizuna egingo dute, 21:00etan azokari amaiera emanez.

Iraganera bidaia adin guztientzat

Eva Fernandezek erakutsitako poza azpimarragarria da Eibarrera azoka hau ekartzeagatik: "Guretzat oso garrantzitsua da adin guztietako herritarrei zuzendutako ekitaldia izatea. Familia osorako plana da: txikienentzako ludoteka zabala dugu logika eta trebetasun jokoekin; nerabe eta kuadrillei arreta erakartzeko ikuskizunak ditugu; eta nagusientzat musika, giroa eta gastronomia". Airerako zirkuko egitura berezia ere jarriko dute, aireko dantzaldiekin.

Azkenik, antolatzaileek herritar guztiei dei egin diete Untzagara hurbiltzeko: "Lehenengo urtea izanda, jendeak ikusi egingo du zer egiten dugun, baina gure asmoa urtero azoka indartzea, tabernek zein eibartarrek parte hartzea eta garaiko jantziekin etortzea da. Hori lortzen denean, benetako bidaia egiten da iraganera", amaitzen du Fernandezek. Asteburuan, beraz, Erdi Aroko magia eta galiziar izaera nagusituko dira Untzagan.

“Itzioko institutua bera da gure dekoratua”

IÑIGO PRIETO • Basque Horror kolektiboa >>>

Gau Beltza antolatu dute Basque Horror kolektiboko kideek urriaren 31rako, Itzioko institutuan. Doako beldurrezko esperientzia izango da, 19:00etatik gauerdira arte, eta 14 urtetik gorakoentzat dago gomendatuta. Iñigo Prietok azaldu duenez, Eibarren Arimen Gaua bizitzeko beste aukera bat eskaintzea da asmoa, herriko lagunen ilusioari eta lanari esker.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Eibarko 24 lagun inguruk osatutako Basque Horror taldeak urte eta erdi inguru darama proiektua prestatzen. Iñigo Prietoren ekimenez sortu zen ideia, eta Itzioko institutua beldurrezko istorio baten agertoki bihurtuko dute urriaren 31n. Baliabide mugatuekin, argiak, musika eta kea erabiliko dituzte giroa sortzeko, baina eraikina bera izango da dekoratu nagusia.

Nola sortu zen Eibarren Gau Beltza antolatzeko ideia?

Beti izan naiz beldurrezko gauzen zalea: filmak ikustea, escape roometara joatea eta antzeko esperientziak bizitzea gustatzen zait. Aspalditik nuen buruan horrelako zerbait Eibarren antolatzea, baina ez genuen ez lokalik ez baliabiderik.

2025eko martxoan proposatu nion ideia Kultura Sailari, eta gustatu egin zitzaien, baita alkatetzari ere. Gau Beltzaren inguruan zerbait antolatzea pentsatu genuen, gero eta jende gehiagok ospatzen duelako. Hasierako ideia txikiagoa zen, baina lokala aurkitzea izan zen arazoa. Azkenean, Itzioko institutua etorri zitzaidan burura. Korrika egitera joaten naiz sarritan inguru horretatik, eta eraikinak berak ere badu zerbait beldurgarria. Proposatu egin nuen, eta aukera hori aztertzea erabaki genuen.

Urte eta erdi inguruko prozesua izan da. Zer izan da zailena?



Batez ere, administrazio-izapideak. Kultura Sailarekin mezu asko trukatu behar izan ditugu, eta txostenak eta larrialdietarako plana ere prestatu behar izan ditugu. Azkenean, urrian jaso genuen ekitaldia



Iñigo Prieto, Basque Horror kolektiboko kidea. IRATI ALVAREZ

egiteko baimena. hartuta, eraikinaren ezaugarriak aprobetxatu ditugu.

Zein istorio aurkituko dute esperientzian parte hartzen dutenek?

Itzioko institutua ixtearen inguruko fikziozko istorio bat sortu dugu. Kontakizunaren arabera, ikasleek fenomeno bitxiak gertatzen zirela esaten zuten: zarata arraroak entzuten ziren, argiak itzali eta pizten ziren, eta ateak beren kabuz ireki eta ixten ziren.

Egoerak okerrera egin zuen atezaina hilda aurkitu zutenean. Gertatutakoa argitu ezinik, institutua ixtea erabaki zuten. Urte batzuk geroago, eraikina berriro ireki dute, eta bisitariak orduan sartuko dira istorioan. Hortik aurrera, eraikinean barrena egingo duten ibilbidean, kontakizun horretako hainbat egoera biziko dituzte.

Nola prestatu duzue ibilbidea? Zer aurkituko dute bisitariek?

Eraikinaren barruan hainbat gune prestatu ditugu, bakoitza bere eszenarekin: atezainaren bulegoa, ikasgela, erizaintzako gunea eta beste espazio batzuk. Ibilbide bat osatu dugu, sarrera eta irteera argi bereizita egon daitezen eta jendea barruan gal ez dadin.

“Herriko jendea gara, doan ari gara lanean, eta ez dugu onartuko inork esperientzia hondatzea”

Ez dugu aurrekontu handirik, eta ezin dugu dekoratu ikusgarririk eskaini, baina gauza politak prestatu ditugu. Argiak, musika eta ke-makinak erabiliko ditugu giroa sortzeko. Lehen entsegua egin dugu dagoeneko, eta ekitaldiaren aurretik beste proba bat egin nahi dugu, ezagunekin eta senideekin.

14 urtetik gorakoentzat dago gomendatuta. Zer-nolako beldurra bilatu duzue?

Jendea beldurtzea da helburua, baina ez dugu inor larritu nahi. Horregatik, 14 urtetik beherakoentzat ez

dago gomendatuta. Pertsona bakoitzak modu batera biziko du esperientzia, baina norbait gaizki pasatzen ari bada edo aurrera jarraitu nahi ez badu, edozein unetan atera ahal izango da. Gelditu eta lagundu egingo diogu. Azken batean, aktoreak gara, eta dena da fikzioa.

Nola antolatuko dituzue sarrerak eta taldeak?

Ez dugu aurrez izena emateko sistemarik antolatu; izan ere, lehenengo aldia da eta ez dakigu zenbat jende etorriko den. Ilaran sartzeko sistema erabiliko dugu, eta hiru eta bost lagun bitarteko taldeak osatzen saiatuko gara. Talde txikietan esperientzia hobea da, denek ikusi ahal izango dituztelako eszenak; gainera, pasabide estuak daude.

Ibilbideak hamar minutu inguru iraungo du, eta talde batetik bestera bost minutuko tartea utziko dugu. Beraz, parte-hartzaile kopurua mugatua izango da. Horregatik, garaiz etortzea gomendatzen dugu; ilara luzea sortzen bada, baliteke denek sartzeko aukerarik ez izatea.

Zer esango zenieke beldurrezko esperientzia bat bizitzera animatzen ez direnei?

Animatzeko esango nieke. Badakit jende askori ez zaiola beldurra gustatzen, baina aukera polita da Gau Beltza beste modu batera bizitzeko. Gainera, norbaitek esperientzia utzi nahi badu, edozein unetan atera ahal izango da. Ez dugu inor gaizki pasatzera behartu nahi.

Zer arau bete beharko dituzte bisitariek?

Errespetua izango da arau nagusia. Barruan bete beharreko arauak azalduko dituen kartela egongo da, eta ez dugu onartuko errespetu faltarik edo aktoreak ukitzea. Herriko jendea gara, doan ari gara lanean, eta ez dugu onartuko inork esperientzia hondatzea. Arauak betetzen ez dituenak kanpora joan beharko du.

Bestalde, ibilbidea lasai egin beharko dute, korrika ibiltzeak eszenak galtzea eta istripuak eragitea ekar dezake-eta.

Zer gomendio emango zeniekete urriaren 31n Itziora hurbilduko direnei?

Ahal dela, autoz ez etortzeko gomendatzen dugu, inguruko aparkalekuak mugatuak dira-eta. Oinez igotzea komeni da, Laborategiko igogailuaren ingurutik.



“Lehenengo edizio hau abiapuntu izatea nahi dugu, eta harrera ona badu, datozen urteetan esperientzia hobetzen jarraitzea”

Eta, batez ere, garaiz etortzea, parte-hartzaile kopurua mugatua izango baita.

Lehenengo edizioa izanik, zer espero duzue? Etorkizunean errepikatzeko asmoa duzue?

Guretzat dena berria da, eta gauza asko inprobisatu behar izan ditugu, baina ilusio handia dugu. Nekatuta eta urduri gaude; dena garaiz prest edukiko ote dugun pentsatzeak loa ere kentzen dit batzuetan. Hala ere, oso pozik gaude taldeak egindako lanarekin.

Lehenengo edizio hau abiapuntu izatea nahi dugu, eta harrera ona badu, datozen urteetan esperientzia hobetzen jarraitzea. Ea jendea animatzen den eta Gau Beltza Eibarren hitzordu berezi bihurtzen dugun.

db» eta kitto!
DEBABARRENA KONTATZEKO GARAIA DA

GARAROCK-EK GIROTUKO DU UDAZKENA

LAU KONTZERTU HARTUKO DITU MENDAROK 'GARAROCK UDAZKENEAN' ZIKLOAREN BARRUAN

Rüdiger, Maraca Diablo, Harat eta Gailu taldeek kontzertuak eskainiko dituzte urriaren 30etik azaroaren 27ra bitartean. Emanaldi guztiak San Agustin kulturgunean izango dira, 22:00etan, eta sarrera doakoa izango da.

Gararock udazkenean ekimenak lau musika proposamen eramango ditu Mendarora datozen asteetan. Aurten, ohiko jaialdiaren ordez, lau ostiraletan banatutako kontzertu zikloa antolatu dute.

Kontzertu guztiak San Agustin kulturgunean izango dira, 22:00etan, eta sarrera doakoa izango da, aretoaren edukiera bete arte.

Urriaren 30ean, **Rüdiger** izango da zikloa zabaltzeko arduraduna. Felix Buff musikariaren proiektuak 'Love is a Muscle' hirugarren disko luzea aurkeztuko du. Bederatzi abestiz osatutako lanak maitasuna aldarrikatzen du, ziurgabetasunaren eta polarizazioaren aurrean erresistentzia modu gisa.



Azaroaren 13an, **Maraca Diablo** talde mendaroarraren txanda izango da. Ina Iriondoren proiektutik sortutako taldeak 'Txaskario' disko berria aurkeztuko du etxean. Rock alternatiboa, folka, pop psikodelikoa eta elektronika uztartzen ditu taldeak.



Azaroaren 20an, **Harat** talde beratarrak hartuko du oholtza. Ibai Gogortzak, Mattin Arbelaitzek eta Iñigo Telletxeak osatutako hirukoteak rock esperimentala lantzen du, gitarra distortsionatuak eta erritmo asimetrikoak uztartuz.



Azaroaren 27an, **Gailu** taldeak emango dio amaiera zikloari. Eskarmentu handiko musikariek osatutako proiektuak 'Bizi eta ixo!!' diskoa aurkeztuko du, punkaren, hardcorearen, hip-hoparen eta musikaren adierazpide elektronikoen arteko nahasketarekin.



db!

DEBABARRENEAN ZEHAR



Aste honetan, Debabarreneko bitxikeriak ezagutuko ditugu Debabarrenean Zehar saioan. Gure herrietako historia, ondarea eta datu harrigarriak izango ditugu hizpide, galdera-erantzunen bidez. Oraingoan, gainera, ikusleak izango dira protagonistak: zazpi galdera eta erantzun zuzena asmatzeko erronka! Eta zuk, zenbat dakizu gure eskualdeaz?

ALBISTEAK

Blues Hotsak 2026 jaialdiak Debabarrena musikaz beteko du azaroan.



Edukiontzi marroiaren erabileran urteko zenbaketa sistema ezarriko da Debabarrenean.





PLANA db!

Urriak 30

BERTSO	**BERTSO JAIALDIA**	20:00	ANTZOKIA (ERMUA)
JAIA.	**BARIKUTXO! GABA BELTZA**	23:00	ESKILARAPEKO (ERMUA)
TAILER.	**BARRETERAPIA EMAKUMEENTZAT***	18:00	TOLAREKUA (SORALUZE)
TOPAK.	**HIKAFARI-MERIENDAK**	13:30	ALLEGRO ELKART. (SORALUZE)
MUSIK.	**RÜDIGER.** GARAROCK	22:00	SAN AGUSTIN (MENDARO)
JAIA.	**MOJITO GABA.** GABA BELTZA	20:30	GAZTETXEA (MENDARO)
ASANB.	**ITAIA. MATXISMOAREN AURKAKO ASANBLADA**	17:30	OTARRE GELA (MENDARO)
GAU BELTZ.	**PSYCHO CLOWN**	21:00	KALEETAN (DEBA)

Urriak 31

GREBA	**ESS. A11KO GREBA-ASANBLADA**	12:00 11:30	TXALTXAZELAI (EIBAR) PLAZA BERRIA (DEBA)
GAU BEL.	**ZAPATU BELTZA+ DJ**	20:00	ZAIZOI (EIBAR)
GAU BEL.	**LEKITTOKO DEABRUAK**	20:30	KALEETAN (SORALUZE)
GAU BEL.	**TAROT MADARIKATUA** ETORKIZUN KONTSULTATEGIA	22:00	GALLETIAK GOZOTEGIA (MENDARO)
GAU BEL.	**SU TALKA-DEABRU BELTZAK**	22:00	ENPARANTZA (MENDARO)
MUSIK.	**NOKONO**	20:00	CEVICHE JATET. (DEBA)
KALEJ.	**AXURI BELTZA** KALEJIRA ETA TALAIAXKO MAMUA	19:30	GOIKO PLAZA (MUTRIKU)
MUSIK.	**LAUMONO + EHUN KILO**	22:30	BEHEKO PLAZA (MUTRIKU)
ANTZER.	**BATAZ NAHIKO**	20:30	AMEZAGA (MALLABIA)

Azaroak 1

ANTZER	**AMA, AMAMA, MAMUA!**	16:30	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
AZOKA	**ITZIARKO PERIA**	09:00	HAINBAT GUNE (ITZIAR)
KIROLA	**NESKEN XVI. BINAKAKO PALA TXAPELKETA**	10:00	ALDATS PILOTALEKUA (DEBA)



FELIX MORQUECHO

Ikuspuntu normala edo...?

- Bertikala, mesedez.
- Zer?
- Argazkia, bertikalean atera, mesedez.

Lasterketa batean nengoen lanean, badakizue, milaka pertsona korrika aritzen diren horietako batean. Erreportajea egiten ari ginen eta halako batean, taldetxo batekin hitz egin eta erretratua atera eta gero, eskaera: "Aterako al diguzu argazki bat guretzat?". Nola ez, bere telefonoa hartu eta hara non hurrengo eskaera. Bertikala! Argazki bertikala? Zortzi hamar laguneko talde bat... formatu bertikalean? Zeru zati handia goitik, lur dezente azpitik... Zentzurik ez, baina badakizue, bezeroak beti arrazoia omen du.

Eta zergatik bertikala? Korrikalari horien kapritxoa? Konposizio aldetik hobea izango zelako? Bai zera! Instagram-ek horrela agintzen duelako.

Joan den mendean hasi nintzen argazkilari lanetan. Pentsa, lehen lanak karretearekin egiten hasi nintzen (etxeko zaharrei galdetu, gazteak), eta ordutik hona gauza asko ikasi ditut, ikasten jarraitzen dut, eta bizio batzuk barneratzeko denbora izan dut. Horietako bat zera da, nire argazkietako gehien-gehiengoa formatu horizontalean daudela. Korrikalarien argazki bertikalaren zergatia aipatu dut lehen, Interneteko sare sozial horrek sustatzen duen formatua delako. Baina nire hautu horizontalari fidela izateko badut argudio hobea. Eta argudio hori gure aurpegian dugu. Zenbat begi ditugu kasu gehienetan? Bi. Bata bestearen gainean? Ez, ezta? Ba bien artean osatzen dugun irudiak zabalera gehiago du, altuera baino. Beraz, munduari egiten diogun begirada horizontala da.

Horrela izan da hamarkadaz hamarkada. Zine pantailak horizontalak dira, telebistak berdin, eta aintzinako argazki albumak ere horizontaleko formaturako zeuden prestatuak. Kasualidadea? Ez, modu naturalean begiratzeko. Baina kamara duen ordenadore txiki bat poltsikoan eramatera ohitu garenetik gure mundua goitik bera aldatu da. Berritasun zerrenda bukaezina da, baina mundua begiratzeko era ere aldatuko al dugu? Barkatu baina ni gehienetan... [ ]

"Berritasun zerrenda bukaezina da, baina mundua begiratzeko era ere aldatuko al dugu?"



Ezteiak

G E H I G A R R I A

2026ko UDAZKENA

ezteiak



Ezkontza baten atzean ikusten ez dena

Ospakizun bakoitzaren atzean hilabeteetako prestaketak, erabakiak, aurrekontuak eta lan-ordu ugari daude. Eibarko eta Debabarreneko argazkilariek, loradendek, ile-apaindegiek, jatetxeek eta beste hainbat profesionalek laguntzen dute bikote baten egunik berezienetako bat aurreikusitako moduan atera dadin.

Ezkontza batek hainbat ordu irauten du, baina prestatzeak hilabeteak eman ditzake. Ospakizunerako lekua aukeratzea, soineko egokia aurkitzea, menua erabakitzea, loreak prestatzea, musika antolatzea eta



KILIKLIK

gonbidatuak koordinatzea egun handia iritsi aurretik bideratu beharreko zereginetako batzuk besterik ez dira. Ezkongaiek zeremoniaz eta ospakizunaz gozatzen duten bitartean, profesional-talde oso bat egoten da xehetasun guztiak ondo irten daitezen adi. Horietako askok Eibarko eta Debabarreneko negozio txikietan egiten dute lan; bezeroekiko gertutasuna eta tratu pertsonalizatua haien egunerokoaren parte dira.

Soinekoa baino askoz gehiago

Ezkontza batean pentsatzean, burura etorri ohi diren lehen irudiak emaztegaiaren soinekoa, senargaiaren trajea, argazkiak, loreak edo oturuntza izaten dira. Hala ere, elementu horietako bakoitzaren atzean zeremonia baino askoz lehenago hasten den prestaketa-prozesu bat dago.

Ile-apaindegiek eta makillajeko profesionalek ezkongaiei laguntzen diete egun horretarako irudia prestatzen. Loradendek dekorazioan eta lore-sortetan egiten dute lan, bikote bakoitzaren gustuetara egokituz. Argazkilariek unerik garrantzitsuenak nola hilezkortu planifikatzen dute, eta jatetxeek, berriz, menuak, espazioak eta ordutegiak koordinatzen dituzte gonbidatuei arreta emateko.

Zerrenda horri musikariak, jostunak, bitxi-dendak, garraio-enpresak eta ezkontza baten antolakuntzan, modu batera edo bestera, parte hartzen duten beste negozio batzuk gehitzen zaizkie.

Bikote bakoitzak bere lehentasunak eta aurrekontua ditu. Batzuek ospakizun tradizionalen aldeko apustua egiten dute, gonbidatu ugarirekin eta oturuntza bikain batekin. Beste batzuek topaketa txikiagoak, zeremo-



KILIKLIK







KILIKLIK

nia xumeak edo haien nortasuna hobeto islatzen duten proposamenak nahiago dituzte. Aniztasun horrek profesionalak egokitzera eta irtenbide desberdinak eskaintzera behartzen ditu.

Tokiko merkataritzaren balioa

Eibarko eta Debabarreneko profesionalak izateak etxetik gertu ezkontza antolatzeko, zerbitzu bakoitzaz arduratuko direnak pertsonalki ezagutzeko eta prestaketetan harreman zuzena izateko aukera ematen die bikoteei.

Gertutasunak bilerak, probak eta sor daitezkeen doikuntzak ere errazten ditu. Negozio txikientzat, berriz, ezkontza bakoitza aukera bat da euren lana erakusteko, proposamen pertsonalizatuak garatzeko eta bezeroekin konfiantzazko harremanak sortzeko.

Gainera, ospakizunak hainbat sektorerentzat sor dezake jarduera: ostalaritzatik eta argazkilaritzatik hasi eta modara, loradendetara, estetikara eta musikara





KILIKLIK

VESTIDOR
Errebal, 1 (Aldapatxo)| 607 926 886
@vestidor_eibar



BUELTAN GAUDE!

Gerritek
INFORMATIKA
info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Neurrira egindako software-aren garapena

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta





KILIKLIK

arte. Ezkontza bakar batek hainbat negozioren lankidetza ekar dezake, bakoitza funtzio espezifiko batekin.

Egun berezi horren atzean, beraz, esperientzia, sormena eta ordu askotako dedikazioa eskaintzen dituen profesional-sare txiki bat dago.

Joera nagusiak

2027ko ezkontzetan, joera nagusia ospakizun pertsonalagoak, esperientzia originalak eta erromantizismoa zein modernitatea uztartzen dituen estetika izango dira.

- Ezkontza pertsonalizatuagoak. Bikote bakoitzak bere istorioa, gustuak eta nortasuna islatu nahi ditu, ohiko protokoloetatik urrunduz.

- Ospakizun intimoagoak. Gero eta interes handiagoa pizten dute ezkontza txikiek, gonbidatu gutxiagorekin, baina arreta handiagoa jarriz gastronomiari eta xehetasunei.

- Koloredun dekorazioa. Lore ugari, terrakota-tonuak, gurin-horia, gorria eta berde naturala, vintage estiloko elementuekin eta nortasuna duten piezekin batera.

- Nortasundun soinekoak. Begiztak, parpailak, hiru dimentsioko loreak, bolumenak eta jantzi eraldagarriak ospakizunean zehar itxuraz aldatzeko.

IBONE ESTETIKA
Tel. 943 20 16 01 Romualdo Galdos, 10 - b

943 20 17 33
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com
Betidanik eskua onetan!
Isasi, 20
Eibarbus

kili_klik
kili klik
argazkilaritza fotografía
www.kiliklik.eus
646114443 · kilimaksortzen@gmail.com
Indalecio Ojanguren 1 behea

ROSANA
ILEAPAINDEGIA
943 120624
URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

Untzaga plaza, 8
943 20 76 21
ANSA
BITXIDENDA
Zein dotore!

BELAUSTEGI

BASERRIA

ZURE EZKONTZA
ZURE NEURRIRA!



SAN MIGUEL GAINA, 44 · ELGOIBAR

943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM

- Gastronomia, ardatz nagusi. Menu pertsonalizatuak, janari-guneak, koktel bereziak eta bertako produktuak.

- Argazki espontaneoagoak. Irudi natural eta hunkigarriak bilatzen dira, estetika analogikoko bideoak eta oroitzapenak.

Zenbait datu

Ezkontzen merkatua aztertzeko, kontuan hartzeko datu interesgarriak eskaintzen dituzte estatistika ofizialek. Eustaten arabera, 2025ean 7.478 ezkontza erregistratu ziren Euskadin, aurreko urtean baino %0,3 gehiago. Espainiako Estatuari dagokionez, INEren datuen arabera, 2024an 175.364 ezkontza izan ziren, 2023an baino %1,7 gehiago. Datu horiek erakusten dute oraindik ere antolatzen direla ezkontzak.

Eustaten datuen arabera, 2025ean Euskadin erregistratutako ezkontzen %92,1 zibilak izan ziren. Horrek agerian uzten du ezkontza-ospakizunen formatuak aldatu egin direla, eta bikote bakoitzak bere gustu eta beharretara egokitutako aukerak bilatzen dituela.

Adinari dagokionez, ezkontzen diren pertsonen gehiengoa 30 urtetik gorakoa da. 2025ean, ezkondu ziren gizonen %90,4k eta emakumeen %84,9k 30 urte edo gehiago zituzten.



KILIKLIK



fasprint
inprimategia
EZKONTZA-GONBIDAPENAK
Ekarri zuen diseinua edo ideia, eta guk inprimatuko dugu
SERIGRAFIA
943 20 16 13 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac
fasprintei@yahoo.es www.fasprinteibar.com

LANDARE
Estaziño, 4 943 254776
Ezaguta edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin
LANDARE
secretos del agua

"TIRO PITXOI JATETXEA"
Arraten
– Eguneko menua
– Menu pertsonalizatuak
– Menu bereziak
– Karta...
– Ezkontzak
– Ospakizunak...
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

Lakett
estetika & masaje
-Aurpegiko tratamentuak
-Gorputzeko zaintza
-Wellnes tratamenduak
-Manikurak eta pedikurak
Zuen egunik garrantzitsuenean dudin egoteko prestatu
www.lakett.com Tel: 943 530066 Zezen bide,4

Bertsoak badu indarra, baina nork hartuko du lekukoa?

Eibarren bertso-saioek gero eta entzule gehiago erakartzen dituzte, baina haur eta gazteak bertso-eskolara hurbiltzea da erronka nagusietako bat. Hankamotxak Bertso Eskolak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak bertsolaritza herriko kultur bizitzan eta euskararen erabileran sustatzeko lanean dihardute.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**



Neurriz eta errimaz / kantatzea hitza / horra hor zer kirol mota / den bertsolaritza. Xabier Amurizak bertso bidez emandako definizioak ondo jasotzen du bertsolaritzaren berezitasuna: hitzak neurrira ekartzea, errimak lotzea eta gai bati bat-batean erantzutea. Baina bertsolaritza oholtzan entzuten diren bertsoak baino gehiago ere bada. Bertso-eskolan elkartzea, herrian saioak antolatzea, euskaraz aritzeko guneak sortzea eta belaunaldi berriei bidea irekitzea ere bada. Eibarren, bertsolaritzaz gozatzeko hainbat hitzordu antolatzen dituzte urtero, eta azken urteotan saio molde berriak ere probatu dituzte herriko eragileek.

Bertsolaritzak gaur egun Eibarren duen tokiaz eta euskararen erabileran duen eraginaz hitz egiteko, Hankamotxak Bertso Eskolako Maier Fernandez eta Maialen Bergararekin eta ...eta kitto! Euskara Elkarteko Maider Aranberrirekin elkartu gara.







Aurreko orriko irudia: San Andresetako bertso jaialdia, iaz. Goian, Hankamotxak-ek antolaturiko saioa. Eskuman goian: Debabarreneko eskolartekoko partaideak. Eskuman behean: Arrateko bertso afaria aurten. ARGAZKIAK: HANKAMOTXAK ETA ETA KITTO

Entzule gehiago, bertso-eskolan, aldiz, jende gutxiago

Saio molde berriei esker, bertsolaritzara bestelako ikuspegiak eta ahotsak hurbildu direla uste dute Hankamotxak Bertso Eskolako Maier Fernandezek eta Maialen Bergarak. Urriaren 31n, gainera, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa hartuko du Eibarrek. Hitzordu horrek bertsolaritza hizpidera ekarri du, baina herriko egoerari begiratzeak beste galdera bat ere sortzen du: saioetara joaten den jendea bertsotan aritzera animatzen al da?

Hankamotxak Bertso Eskolako kideek azken urteotan bertsozaleen gorakada sumatu dute Eibarren. Haien ustez, hainbat faktorek eragin dezakete joera horretan: batetik, ohiko saioez bestelako proposamenak egin dituzte; bestetik, herritarrek eskaintza horri harrera ona egin diotela ikusi dute. Horrez gain, urtean zehar errepikatzeko moduko bi hitzordu sendotzen saiatu dira: ikasturte hasierako bertso-saio musikatua eta Gabonen inguruan antolatzen dutena. «Urtez urte harrera hobea izaten ari dira», diote.

>>> Ez da gazte eibartarrik animatzen bertsotan aritzera, eta hor ezin asmatu dabil bertso-eskola

Hala ere, entzule gehiago izateak ez du esan nahi bertsotan aritzeko zaletasuna ere handitu denik. Horixe da Hankamotxak-eko kideen kezka nagusietako bat. «Indargune nagusia Eibarko bertsozaleen gorakada bera dela esango genuke, baina ahulgune garrantzitsu bat daukagu: ez da gazte eibartarrik animatzen bertsotan aritzera, eta hor ezin asmatu gabiltza», aitortu dute.

Fernandezek eta Bergarak, beraz, bi errealitate bereizten dituzte: batetik, bertso-saioetara hurbiltzen diren entzuleak; bestetik, bertso-eskolan parte hartzeko pausoa ematen dutenak. Haien ustez, txapelketek eta bestelako saioek bertsolaritzarekiko interesa pizten laguntzen dute, baina bertsolaritza egunerokoan bizirik mantentzeko ezinbestekoa da bertsotan aritzeko eta elkartzeko guneak izatea.

Horregatik, txapelketek ez ezik, bertso-eskolek eta saio informalagoek ere garrantzi handia dute. Hankamotxak-eko kideek azaldu dutenez, gaztetxeetan, kultur guneetan, antzokietan, tabernetan eta plazetan antolatzen diren saioek bertsolaritzaren eguneroko jardunari eusten laguntzen dute.

Saio guztiak ez dira berdinak, gainera. Fernandezek eta Bergarak azaldu dutenez, Euskal Herri-

ko Bertsolari Txapelketak egiteko modu eta arau jakin batzuk ditu; beste saio molde batzuek, berriz, jolasteko eta ariketa desberdinak probatzeko aukera gehiago ematen dute. Horren adibide da Errebalen egin dituzten bertso-saio elektronikoak. Halako proposamenen bidez, bertsoa beste modu batera ezagutzeko aukera izan dute herritarrek, baita ohiko bertso-saioetara joateko ohiturarik ez dutenek ere.

Bertso-eskolaren ateak zabalik

Hankamotxak Bertso Eskolaren lana ez da saioak antolatzearekin amaitzen. Fernandezek eta Bergarak azaldu dutenez, eskolaren helburua herriko haur, gazte eta helduak bertsoaren inguruan biltzea, bertsotan aritzea eta horrekin gozatzea da. Gaur egun, bost bat lagun ari dira eskolan aktiboki, baina azken urteotan denbora gehiago eman dute herrian bertsolaritzaren inguruko ekimenak pentsatzen eta antolatzen, elkartu eta bertsotan egiten baino. «Atzeko lana egiten ari gara gehiago, plazetan agertzen baino, eta hori aldatzea gustatuko litzaiguke», adierazi dute.

Bertso-eskolaren ohiko jarduna indartzeko, haur eta gazteengana iristea dute erronka nagusietako bat. Bertsozale Elkartearen eskutik, Eibarko ikastetxeetan bertsolaritza lantzen dute ikasleek, eta Hankamotxak-eko kideen esanetan, esperientzia horren inguruan jasotzen dituzten iritziak oso onak dira. Hala ere, ikasle horiek ez dira gero bertso-eskolara hurbiltzen, nahiz eta behin baino gehiagotan egin dituzten deialdiak eta saiakerak.



Hankamotxak-ek aurten Errebalen antolaturiko bertso-saio musikatua. IRATI ALVAREZ

>>> Bertso-saioak antolatzea euskarazko kultur eskaintza zabaltzeko modua izateaz gain, hizkuntzaren erabilera sustatzeko bidea ere bada

Horren atzean, bertso-eskolaren inguruko irudi jakin bat egon daitekeela uste dute. Bertsotan aritzea bertsolari ona izatearekin edo jendaurrean kantatzeko gaitasuna izatearekin lotzen bada, jende askok atzera egin dezake lehen urratsa emateko garaian. Fernandezek eta Bergarak, ordea, argi utzi nahi dute ez dela beharrezkoa plazan kantatzeko asmoa izatea: bertso-eskolan jolastu, ikasi, ideiak partekatu eta ondo pasatzeko aukera ere badago.

Horregatik, bertsoa probatu nahi duen edonor gonbidatu dute eskolara gerturatzera, aurretik esperientziarik edo ezagutzarik izan gabe ere. Badakite, hala ere, ez dela erraza egunerokoan beste jarduera bat txertatzea, eta gaur egungo aisialdi ohiturek ez dietela beti laguntzen. Horren aurrean, bertso-eskolaren berri ematen jarraitzeaz gain, bertsoa beste gune batzuetara eramatea ere interesgarritzat jotzen dute, herritar gehiagok bertsolaritzara hurbiltzeko aukera izan dezaten.

Entzule berriak erakartzeko, oholtzan entzuten diren ahotsak eta gaiak ere garrantzitsuak dira. Hankamotxak-eko kideen iritziz, azken urteotan bestelako profilak agertu dira saioetan, bai antolatzen diren proposamenengatik, bai emakume bertsolariek eta gai-jartzaileek gero eta leku handiagoa dutelako. Haien esanetan, lehen oholtzan hainbesteko lekurik ez zuten gaiak eta ikuspegiak ere entzuten dira orain, eta hori positiboa da.



Arrateko bertso afaria, iaz. ETA KITTO

«Bide berriak arakatzea eta bestelako ahotsak oholtzan egotea guztiz beharrezkoa eta interesgarria da guretzat», azaldu dute.

Eibartarren erantzunarekin ere pozik daude. Antolatzen dituzten saioetan jendea biltzen dela eta une politak sortzen direla nabarmendu dute. Orain, bertsozaleen arteko mugimendu horri eusteaz gain, bertso-eskolara ere jende berria erakartzea dute helburu.

Euskaraz elkartzeko aukera

Bertsolaritzaren inguruan jendea biltzea eta euskaraz aritzeko guneak sortzea da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen dituen ekimenen helburuetako bat ere. Maider Aranberrik azaldu duenez, bertsolaritzak leku garrantzitsua du elkartearen jardunean, euskaraz bizitzeko aukerak eskaintzen dituelako eta herriko kultur bizitza elikatzen duelako. Gainera, bertsolaritza euskararen eta euskal kulturaren adierazpide berezia izateaz gain, gaur egungo gizarteaz eta herriaz hitz egiteko bidea ere badela nabarmendu du.

Helburu horrekin, elkarteak hiru hitzordu antolatzen ditu urtero: Arrateko Bertso Afaria, San Andres Bertso Paper Lehiaketa eta San Andres Bertso Jaialdia. Aranberrik azaldu duenez, ekimen bakoitzak bere izaera du, baina guztiek dute xede bera: bertsolaritza Eibarren bizirik mantentzea eta herritarrengana hurbiltzea.

Arrateko Bertso Afaria irailaren 7an egiten dute, Arrate bezperan, Tiro Pitxoi jatetxean, puntako lau bertsolari gonbidatuta. San Andres jaien bueltan, berriz, Bertso Paper Lehiaketa antolatzen dute (azaroaren 6an amaitzen da lanak aurkezteko epea). Lehiaketak bi maila ditu: 16 urtetik beherako Eibarko ikasleena eta 16 urtetik gorakoena, Euskal Herri mailan. Sariak San Andres egunaren aurreko barixakuan banatzen dituzte, Coliseo antzokian egiten den bertso-jaialdiaren aurretik.

Hiru hitzorduek bertsolaritzaren alderdi desberdinak lantzen dituzte. Afariak eta jaialdiak bat-bateko bertsoez gozatzeko aukera ematen dute; lehiaketak, berriz, idatzizko bertsolaritza eta sormena sustatzen ditu. Aranberriren esanetan, bertsolaritza ez da bat-bateko jardunera mugatzen, eta idatzizko lana bultzatzea ere garrantzitsua da.

Saio guztiek ez dute, gainera, harrera bera izaten. Aranberrik azaldu duenez, Arrateko Bertso Afariak urtez urte izan du bere oihartzuna; San Andres jaietako jaialdian, berriz, azken urteotan gazteak eta inguruko herrietako jendea erakartzea lortu dute. Erantzun hori positibotzat jo du, eta bide horretan jarraitzeko gogoa ematen diela adierazi du.

Hitzordu horien garrantzia ez da saioa bera entzutean amaitzen. Aranberrik nabarmendu duenez, bertso-saioek euskarazko kultur ekitaldi baten inguruan biltzeko aukera ematen diete herritarrei, eta askotan euskarazko harremanak ere sortzen dira ekitaldien aurretik eta ondoren. Horrez gain, bertsolaritzak hizkuntzarekin jolasteko, umorea egiteko eta gaurkotasunaz hitz egiteko aukera eskaintzen du. Horregatik, elkartearen ustez, bertso-saioak antolatzea euskarazko kultur eskaintza zabaltzeko modua izateaz gain, hizkuntzaren erabilera sustatzeko bidea ere bada.

Film laburrez gozatzeko aukera izango dugu astelehenetik aurrera

Azaroaren 2tik 7ra bitartean, Coliseo Antzokiak XXVII. Eibarko Film Laburren Jaialdia hartuko du, Asier Errastiren omenez. Plano Corto kolektiboak antolatutako lehiaketak 160 lan baino gehiagoren artean hautatutako piezarik onenak eskainiko ditu aste osoan zehar, egunero 19:30ean hasita, Coliseo antzokian.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



Asier Errastiren izena darama jaialdiak.

Informazio gehiago jaialdiaren webgunean:

Azaroaren lehen astean zinemaren eta ikus-entzunezko sormenaren erdigune bihurtuko da Eibar. Azaroaren 2tik 7ra bitartean ospatuko da XXVII. Eibarko Film Laburren Jaialdia, hau da, Asier Errasti Jaialdia, herriko kultura agendan errotuta dagoen eta urtez urte ikusleen zein zinegileen babes beroa jasotzen duen kultur hitzordua. Astelehenetik barixakura bitartean, egunero 19:30etik aurrera, Coliseo antzokiko pantaila handia formatu laburreko istorio indartsuz beteko da, eta zapatuan, azaroak 7, sari-banaketa ekitaldi nagusia eta saritutako lanen emanaldia egingo dira.

Antolakuntzaren atzean Plano Corto elkartea dago, eta egitasmoaren prestakuntza lanen buru dabil berriro ere Oskar Lopez de Zubiria presidentea. Jaialdiaren sustraiak gogora ekarrita, Lopez de Zubiriak azaldu du lehiaketa honek jatorri berezia duela: 1999an Asier Errasti zinegile eibartarrak '1999' izeneko film laburra errodatu zuen, eta bere lagun talde batek Plano Corto sortu zuen ekimena bultzatzeko. 2000. urtean Errasti ustekabean hil zen, eta elkarteko kideek lekukoa hartu eta jaialdiari bere izena jartzea erabaki zuten. Lopez de Zubiriak berak, zinemazalea ez bada ere, elkartean sartzea erabaki zuen laguna omentzeko, eta gaur egun, 11 urte baino gehiagoko ibilbidearen ondoren, antolakuntzaren lehen lerroan jarraitzen du.

Umore gehiago aurten

Aurtengo edizioari dagokionez, hautaketa prozesua nahiko intentsoa izan da antolatzaileentzat. Guztira 160 lan baino gehiago jaso dira lehiaketan. Lan guztiak Eibarko Udalaren bidez bideratu dira (datuen babeserako araudiak bete-



Itziar Ituño aktore ezaguna da asteartean, azaroak 3, emango duten 'Ziklope' film laburraren protagonistetako bat.

tzeko), eta ondoren Plano Cortoko kideek banan-banan aztertu eta ikusi dituzte proposamen guztiak. Antolatzaileen esanetan, aurtengo sormen maila oso altua da eta ikusleek kalitate handiko saioez gozatzeko aukera izango dute. Gainera, aurreko urteetako drama gogorren aldean, aurten umoreak leku nabarmenagoa hartu duela azpimarratu digu Lopez de Zubiriak, sasoi hauetan beti eskertzen den arintasuna eta freskotasuna ekarriz.

Programazioaren diseinuan arreta berezia jarri du antolakuntzak, saio bakoitza esperientzia erakargarria izan dadin. Egunero 10 film labur inguru proiektatuko dira, bi ordu inguruko emanaldi dinamikoetan. Zine-saioen egituraketa DJ baten lanarekin alderatu du Lopez de Zubiriak: lehenengo film laburra oso laburra izaten da, Coliseora pixka bat beranduago iristen diren ikusleek hurrengo

Aurten 160 lanen artean aukeraketa egin behar izan dute jaialdiaren programa osatzeko

Emanaldiak egunero egingo dira astelehenetik barixakura, 19:30ean, eta zapatuan gala berezia egingo da, ordu berean

proiekzioan sartzeko itxaronaldi luzerik egin ez dezaten. Jarraian, generoen arteko oreka bilatzen da; tonu gogorragoko istorioen ondoren umorezko piezak jartzen dira ikuslearen erlaxatzeko. Halaber, eredu independenteari eusten dio jaialdiak: ez dituzte komertzio-plataforma ordainpekoak erabiltzen eta proiekzio guztiak doakoak dira ikusleentzat.

Hori gutxi balitz, euskarazko sormenari harrera eta babes berezia eskaintzen dio lehiaketak. Egunero proiektatuko da gutxienez euskaraz egindako film labur bat. Jaialdiak Euskera Saria du, gure hizkuntzako ikus-entzunezkoen ekoizpena bultzatu eta aitortzeko helburuarekin, nahiz eta antolatzaileek lan gehiago jasotzea nahiko luketen. Bestalde, herriko sormena sustatzeko ahaleginean, 200 euroko sari berezia dago eibartarrek egindako lanentzat. Tamalez, aurten kategoria hori

Egunero emango dute euskarazko film labur bat; ostera, aurten ez dago eibartarrek sortutako lanik



Asier Errasti Film Laburren Jaialdiaren aurtengo kartela.

hutsik geratuko da, herriko zinegileen proposamenik jaso ez delako.

Babesleei eta laguntzaileei dagokienez, jaialdiak eragile publiko zein pribatuen babesa du, haien artean Eibarko Udala, EiTB, Eroski, Kalaka taberna, Buenos Aires taberna, Baratze edota EUKI Asesoria. Bereziki aipagarria da EiTB Sari Berezira bideratutako lankidetza, aurtengoa bigarren urtea izango baita aitortza hau ematen dena. "Sari honek kalitatezko zigilua eta bultzada handia ematen dio lehiaketari, jaialdiaren izena eta zabalkundea indartuz", Lopez de Zubiriaren berbetan.

Astelehenetik barixakura bitarteko saioen ondoren, jaialdia zapatuan borobilduko dute, azaroaren 7an. Arratsaldeko 19:30ean hasita, jaialdiaren Gala Nagusia egingo da Coliseon. Bertan eskainiko dira aurtengo film labur saritu guztiak eta sari-banaketa ofiziala egingo da. Ekitaldiari amaiera gozoa emateko, antolatzaileek pikoteoa eskainiko diete bertaratutakoei, giro hurbilean topaketa egiteko aukera emanez.

Jaialdiak 27. edizioa beteko du arten eta, aurrekontu murriztua izan arren, zinemaren munduan izena duela diote antolatzaileek

Sarrera librearekin eta kalitatezko kultur eskaintzarekin, Eibarko zein inguruko zinemazale guztiei luzatu die gonbidapena Plano Corto kolektiboak, datorren astean Coliseoko eserlekuak betetzeko eta film laburren magiarekin gozatzeko, Asier Errastik nahiko lukeen bezala.

Gizonezko errugbilarien garaipena Zarautzen

E.B. Ligako azken sailkatuari egin zion bisita asteburuan gizonezkoen Euskal Ligan jokatzen duen Eibar Rugby Taldeak eta aukera ondo aprobetxatu zuen. Partida hasiera berdintsuaren ondoren, 30. minutuan eibartarrek aldea zabaldu zuten markagailuan eta, minutuek aurrera egin ahala, gero eta abantaila handiagoa lortu zuten, azken emaitzara arte: 19-38.

Eibartarren aldetik, aipatzekoa da Ahmadfekri El Ghabali El Moussaoui, Jokin Garcia Basurtok eta Arrizabalaga Zenarruzabeitiak egindako lana, eurek lortu baitituzten eibartarren tanto gehienak.

Garaipen horrekin, bi partida irabazi ditu dagoeneko Eibar Rugby Taldeak eta orain sailkapeneko 5. postuan dago, 9 punturekin, atzeko postuak atzean lagata.

Hurrengo jardunaldian, Eibarrek BRT Menditarrak taldea jasoko du Unben (horrela adierazi dute Euskal Federaziotik, zelaian onddo arazoak izan diren arren), domekan azaroak 1, 12:00etan.

CD Urki beheko postuetara gerturatu da

E.B. Ez da denboraldi hasiera ona izaten ari Ohorezko Erregional Mailan jokatzen duen CD Urki taldearentzat. Zazpi jardunalditan garaipen bakarra lortu du eta sailkapenaren 16. postuan dago, orain, azken biak hiru puntura dituela.

Asteburuan, Oiartzun izan zuen arerio eta 2-1 galdu zuen Karla Lekuona zelaian. Etxekoak 7. minutuan aurreratu ziren eta Urkik 25. minutuan berdindu zuen. 63. minutuan, ostera, Oiartzunek penaltia sartu eta irabazi egin zuen.



Deporreko mendizaleek Hartzaren Urratsak ibilbidearen 4. etapa egingo dute

E.B. Eibarko Klub Deportiboko mendi-batzordeak GR 289 Hartzaren Urratsak ibilbidearen laugarren etapa antolatu du biharko. Zeharkaldia Araotzen hasiko dute, Artzanburu menditik (1.365 metro) igaro eta Oñatin amaitzeko. Irteera goizeko 08:00etan izango da, eta itzulera 17:00ak ingururako aurreikusi dute.

Ibilbide nagusiak 17,5 kilometroko luzera izango du, 1.075 metroko goranzko desnibel metatuarekin eta 1.215 metroko beheranzkoarekin. Arrikurutz kobetako aparkalekuan hasiko dute ibilaldia, eta Arantzazurantz egingo dute marka zuri-gorriei jarraituz. Ondoren, Duruko txaboletatik eta Eskistatik igaroko dira. Handik, nahi dutenek Artzanburu tontorrera igotzeko aukera izango dute. Biozkornako lepotik beherako bidea hartuko dute gero, Oñatira iristeko.

Ibilbide nagusiaz gain, aukera laburragoa ere prestatu dute: 12 kilometrokoa, 520 metroko goranzko desnibelarekin eta 970 metroko beheranzkoarekin.

Izen-ematea zabalik dago. Klub Deportiboko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, 20 euro. Izena emateko, mendia@deporeibar.com helbidera idatzi daiteke; bestela, klubaren bulegoan egin daiteke, astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara. Ordutegi berean, 943 20 19 04 telefono zenbakira deituta ere eman daiteke izena.





Eibarko 55 haur izan ziren Gipuzkoako Eskolarteko Finalistaren Egunean

E.B. Gipuzkoako Eskolarteko Finalistaren Eguna Aitzarte Mendizale Taldeak eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak elkarlanean antolatu zuten Donostian, urriaren 25ean, lurralde osoko haur ugariren parte-hartzearekin. Tartean Eibarko 55 haur izan ziren, Egia auzotik abiatu eta Ulia mendian barrena berriro hasierako puntura itzultzen zen 9 kilometroko ibilbide zirkularra osatuz.

Egunak eguraldi atsegina eskaini zuen ibilbidea egiteko, lainoak eta ostarteak nahastuz. Horri esker, parte-hartzaileek basoaz zein itsasorako bista paregabeez gozatzeko aukera izan zuten. Martxa amaitutakoan, jai giro politean, hamaiketakoa eta opariak jaso zituzten bertaratutako haur guztiek.

Ikasturteko bigarren irteera azaroaren 22an egingo dute, Elosua - Irukurutzeta - Azkarate artean.

Bergara Pneumatikoak-ek alde egin du sailkapenean

E.B. Malape Taberna eta Xania Tabernaren arteko lehia egon zen asteburuan, futbol zaletuaren ligan. hau da, sailkapeneko 2. eta 3. taldeak elkarren aurka aritu ziren, eta Bergara Pneumatikoak liderra irten zen hortik garaile, besteek berdindu egin zutelako.

Bana amaitu zen Malape eta Xaniaren arteko lehia, eta Bergara Pneumatikoak, kostata izan arren, 1-2 irabazi zion Athlete Terrazari.

Asteburu honetan taldeek atseden hartuko dute, Domu Santu eguna dela-eta ez delako jardunaldirik jokatuko.

SAILKAPENA

1. Bergara Pneumatikoak, 12 puntu
2. Malape Taberna, 10 puntu
3. Xania Taberna, 10 puntu
4. Garajes Garcia, 10 puntu
5. Kalaka Buenos Aires, 7 puntu
6. Adahi Etxegi, 6 puntu
7. Limpiezas Rueda, 3 puntu
8. Athlete Terraza, 3 puntu
9. Baserri, 3 puntu
10. Bar Marem, 3 puntu



Eibar Eskubaloi taldeko seniorrek asteburu bikaina izan zuten, hiru garaipenekin

E.B. Gizonezkoen lehen taldeak partida zaila zuen Ipuruan, Romo liderra jaso baitzuen. Eibartarrek partidu bikaina jokatu zuten eta 33-26 gailendu zitzaien. Horrela, 2. postura igo dira eta puntu bakarrera dute Barakaldo liderra.

Euskal Ligako bigarren taldeak, Hondarribia Bidasoa taldea jaso zuen azkenengo postuetatik alde egiteko asmoz. Lehia parekatua izan zen, baina azkenean etxekoak nagusitu ziren, 27-24. Horrela, eibartarrak 9. postuan kokatu dira.

Zilarrezko Ohorezko Mailako emakumezkoen taldeak ez dihardu oso denboraldi hasiera izaten. Lehen hiru partidak galdu ondoren, lehen puntuak lortzeko premia zuten eibartarrek eta aukera ona zuten, eurak bezala punturik gabe zegoen Berango-Urduliz zutelako parean. Partida ez zen erraza izan, baina azkenean Eibar nagusi izan zen, 22-26, eta baikor begiratzen dio etorkizunari orain.

Ipuruako gimnastak bikain San Andres Torneoan

E.B. Joan den zapatuan, urriak 24, San Andres Torneoa jokatu zen Ipurua kiroldegian eta etxekoak izan ziren nagusi bertan. Izan ere, Ipurua gimnasia erritmikoko klubeko talde eta banakako guztiek lortu zuten podiumera igotzea, batzuk lehen postuan.

Taldekako lehian, oinarrizko infantil eta jubenil taldeek eta junior absolutu taldeak lehen postua lortu zuten. Bakarkakoan, bestalde, Uxue Garcia alebina eta Arrate Bascaran jubenila hirugarren izan ziren.

Asteburu honetan beste zita garrantzitsu bat izango dute Ipuruako gimnastek, BEC-en jokatuko den Euskalgym txapelketan izango baitira.



Aitziber Olaizola garaile Aramaioko tiraldian

E.B. Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketaren 2. jaurtialdia jokatu zen zapatuan, Aramaioko Etxan bolatokian. Guztira 84 bolarik hartu zuten parte eta irabazlea San Migel A taldeko Aitziber Olaizola elgoibartarra izan zen, 7 txirlorekin.

Bigarren postuan Bergarako Asier Azkarate gelditu zen eta 3. postuan Sebas Aranzabal elgetarra, biak ala biak 5 txirlorekin. Euren atzetik Nahia Etxaburu markinarra eta Kepa Etxebarria aramaioarra sailkatu ziren, lau txirlorekin.



Urbat taldeko gizonezkoen seniorrak bikain dabiltza denboraldi hasieran

E.B. Urbat IKEko taldeek emaitza onak lortu zituzten joan zen asteburuko waterpolo jardunaldian. Senior mailako gizonezkoen bi taldeek garaipen bana eskuratu zuten, biak markagailua irauli ondoren, eta guztira sei puntu batu zituzten. Kadeteen eta infantil mistoaren taldeek ere irabazi egin zuten; jubenilek, aldiz, 8-14 galdu zuten WP Navarraren aurka.

Bigarren Nazionaleko Senior A taldeak 12-9 irabazi zion Molins de Reyri. Maila handiko aurkariaren aurka, eibartarrek 4-5eko markagailu kontrakoa irauli behar izan zuten. Erreakzionatu eta joko-maila hobetzea lortu zuten, amaieran garaipen sendoa eskuratzeko. Xabat Kartera atezaina izan zen partiduko jokalaririk onena (MVP).

Euskal Herriko Lehen Mailako Senior B taldeak ere garaipen garrantzitsua lortu zuen Sestaoren aurka, 13-11 irabazita. Eibartarrek 5-8ko egoera zailari buelta eman behar izan zioten, eta amaierara arte borrokan jarraituta lortu zuten markagailua iraultzea eta beste hiru puntu batzea.

Prestakuntza-mailetan, Kadete Mailako mutilen taldeak 6-17 irabazi zion Easwimi. Defentsako lan ona izan zen garaipenaren gakoetako bat, Urbatek partida kontrolatzea eta alde nabarmenarekin amaitzea ahalbidetu diona.

Infantil Mistoak ere garaipena eskuratu zuen Easwimen aurka, 9-14ko emaitzarekin. Emaitza positiboa lortu arren, taldeak baditu oraindik hobetu beharreko alderdiak, eta lanean jarraitu beharko du denboraldian aurrera egiteko.

Jubenil Mailako taldeak, berriz, ezin izan zuen WP Navarra gainditu, eta 8-14 galdu zuen. Urbatek zailtasunak izan zituen bai defentsan, bai erasoan, eta aurkariak bere aukerak hobeto aprobetxatu zituen.





Eibar Igerixanek emaitza onak lortu zituen Alebin Ligako lehen jardunaldian

E.B. Eibar Igerixanek Alebin Ligako lehen jardunaldian parte hartu zuen joan den zapatuan, Azpeitian. Eibarko taldeko 12 igerilari aritu ziren lehian.

Emakumezkoen taldean Nagore Aguero, Aiora Vega, Ariane Valenciaga, Noa Amesti, Carmen Echaluce, Uxue Dominguez, Lirie Bardhoshi, Alkida Ahmetal eta Alazne Avellaned lehiatu ziren. Gizonezkoen taldean, berriz, Leo Gutierrez, Luka del Rio eta Mohammed Mokaddem.

Jardunaldiko emaitza nabarmenena Mohammed Mokaddemena izan zen. Hiru garaipen eskuratu zituen: 25 metro tximeleta, 200 metro libre eta 100 metro estilo probetan.

Ariane Valenciagak ere emaitza onak lortu zituen, 25 metro tximeletan bigarren eta 100 metro estiloetan hirugarren amaitu baitzuen. Lirie Bardhoshik, bestalde, 50 metro libreko proba irabazi zuen, eta Uxue Dominguez hirugarren izan zen distantzia berean.

Deporreko ia 30 ordezkarik hartuko dute parte Lasarteko Krosean, domekan

E.B. Donostiko Nazioarteko Krosaren 70. edizioan atletismo eskolako gazteak eta atleta federatuak lehiatuko dira.

Mikel Arriola Muniozguren, Julen Teran Belastegui, Pello Berrizbeitia Apellaniz, Roberto Gartzia Herrero, Ugaitz Gartzia Ruiz eta Nora Martinez Baroja (federatuak); Jare Perez de Obanos, Haritz San Miguel, Oier Ciarsolo, Eva Ferreiro, Jon Arkotxa, Sare Azpiazu, Mikel Etxaide eta Eiden Esnaola lehiatuko dira (benjaminak); Saioa Guerrero, Hodei Trifol, Marina Morales, Laia Castro, Malen de Andres, Hegoi Urain, Gari Perez, Markel Arrieta, Lourdes Lorenzo eta Jone Hernandez (alebinak); eta Lucia Arkotxa, Iker Caño, Maddi Perez de Obanos eta Isabel Pita (infantila) izango dira Deporreko ordezkariak.

Beorlegiren berdinketa eta Aranaren porrota etxean

E.B. Eibarko Klub Deportiboaren egoitzan jokatu zen zapatuan, urriak, 24, Gipuzkoako xake Txapelketaren 3. jardunaldia. Xakelari eibartarrek, ostera, ez zuten etxean jokatzen zutela aprobetxatu eta Xabier Beorlegik berdinketa lortu bazuen, Jon Aranak galdu egin zuen bere partida. Beorlegik Jon Vernier izan zuen arerio eta Aranak Iker Garcia izan zuen aurrean.

Txapelketak aurrera jarraitzen du eta bihar, urriak 31, 4. jardunaldia jokatuko da toki berean, Deporren egoitzan, 16:00etan.



Artesanos Juantxok galdu egin zuen Donostian

E.B. Gipuzkoako 1. Mailan jokatzen duen Artesanos Juantxo saskibaloi taldeak 67-76 galdu zuen asteburuan, Donosti Dolphins taldearen aurka. Eibartarrek ezin izan zioten bolada onari eutsi eta, lehia eman arren, ezin izan zuten donostiarren aurka. Beraz, sailkapenaren erdialdean kokatzen dira, 4. postuan hain zuzen ere, sei punturekin. Liderra bi puntura besterik ez dute.

Eibar Saskoibaloiko seniorretako beste taldeek ere ez zuten punturik eskuratu. Emakumezkoen seniorrek 36-46 egin zuten Arri BKL-ren aurka, eta 3. mailan jokatzen duten gizonek 68-39 galdu zuten Aloña Mendiren kontra.



Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa Iban Aranburuk irabazi du

S.H. Domekan (urriak 25) egin zen Eibarko XLIX. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa, Eibarko Udalak Eibarko Artisten Elkartearen laguntzarekin antolatuta, eta 60 lagunek hartu zuten parte. Parte-hartzaileek naturatik margotu behar izan zituzten lanak, antolakuntzak zehaztutako eremuetan: udaletxearen inguruan, Isasi kalearen eta San Andres pasealekuaren artean, eta Amaña auzoan.

Epaimahaiak Iban Aranbururi eman zion lehen saria, Eibarko Hiria Sari Berezia (1.000 euro eta garaikurra). Fernando de Vicentek eskuratu zuen bigarrena (800 euro), Fernando Uretak hirugarrena (600 euro), eta Carlos Espigak laugarrena (300 euro). Herriko saria Martina Garaterentzat izan zen (300 euro). Gazteen kategorian, Paula Arruzak eraman zuen lehen saria, eta Mara Estebanek bigarrena. Haurren kategorian, berriz, Valeria Merinok eskuratu zuen lehen saria, eta Alexandra Treviñok bigarrena.



Pagatxa elkartekoak Biarritz eta Hondarribin egon dira

S.H. Pagatxako emakumeak ederto ibili dira Biarritz eta Hondarribira egindako txangoan. Esan digutenez, "eguraldia eta konpainia bikaina" izan zituzten lagun.



Kultur aniztasuna ardatz duen programazio zabala

S.H. Migrazioaz, giza eskubideez eta kultura aniztasunaz hausnartzeko hainbat jarduera egingo dira Eibarren datozen asteetan, *Udazken anitza 2026* egitarauaren barruan. Eibarko Udalak Gizarte Zerbitzuen Sailaren bidez antolatu du egitaraua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin.

Egitarauak hitzaldiak, literatur topaketak, informazio saioak eta kultur emanaldiak bilduko ditu, urriaren 29tik abenduaren 18ra bitartean. Jarduera gehienak Portalean egingo dira (azkena Coliseon izango da).

Programazioa urriaren 29an hasiko da, 18:30ean, Portalean, *Mujeres y represión universitaria en Colombia* gaztelaniazko saioarekin. Azaroaren 4an, berriz, Amets Arzallus bertsolari eta idazlearekin elkartzeko aukera izango da, 19:00etan, *Miñan* liburuaren inguruan euskaraz egingo duten solasaldian.

Azaroaren 5ean, SOS Arrazakeriako abokatu batek atzerritartasun tramiteei buruzko informazio saioa emango du, gaztelaniaz, 19:00etan. Hurrengo astean, hilaren 12an, *Migración, islamofobia y convivencia: Ceuta como parte de la reflexión* hitzaldia egingo dute, migrazioaren, aurreiritzien eta bizikidetzaren arteko harremana aztertzeko.

Familientzako proposamen bat ere izango da, azaroaren 28an. Eguerdiko 12:00etan, *Zapatuko ipuina* saioaren barruan, *Euskal Herria Sahara* kontakizuna eskainiko dute Portalean, euskaraz.

Abenduaren 2an, *Bidasoa 2018-2023* dokumentala proiektatuko dute Portalean, 18:30ean, eta ondoren solasaldia egingo da, euskaraz. Bidasoako mugaren inguruko errealitateak eta pertsona migratzaileen bizipenak izango dituzte hizpide.

Egitaraua abenduaren 18an amaituko da, Coliseo antzokian, *No hay negros en el Tíbet Live Show* gaztelaniazko ikuskizunarekin. Saioa 19:00etan hasiko da.



Vanessa Atecaren ‘Material Emocional’ Portalean ikusgai

S.H. Vanessa Ateca artista eibartarraren *Material Emocional* erakusketa zabalduko dute zapatuan, urriaren 31n, Portalean. Azaroaren 29ra arte egongo da ikusgai. Erakusketak artistaren bilakaera erakusten du: erretratuak margotzetik pintura abstraktuago eta askeago bat lantzera egindako bidea.

Barne-diseinatzaile gisa trebatu da Vanessa Ateca, eta hormen eta espazio egituratuen muga fisiko eta sinbolikoetatik harago joateko nahiak bultzatu du bilaketa artistikoari ekitera. Gaur egun, Atecaren pinturak figuratiboaren eta abstraktuaren arteko mugan egiten du aurrera, bi adierazpideen arteko tentsioarekin jolastuz, eta pop artearen erreferentziak txertatuz.

Erakusketa Portalean bisitatu ahal izango da, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



Gaur banatuko dira Indalecio Ojanguren lehiaketako sariak

S.H. Gaur (urriak 30) zabalduko dute Indalecio Ojanguren XXXIX. argazki lehiaketaren erakusketa, Portalean, eta sari-banaketa ere bertan egingo da. Azaroaren 29ra arte egongo dira ikusgai saritutako argazkiak, parte-hartzaileen selekzioarekin batera.



‘Atra Bilis’ komedia beltza taularatuko dute domekan

S.H. Domekan (urriak 1) taularatuko dute *Atra Bilis* antzezlana Hilo Producciones taldekoek, 19:00etan Coliseo antzokian. Laila Ripollek idatzitako lana “saritutako komedia beltza da, oso beltza, senide-hiltzailez, katu-hiltzailez eta antzekoez betea”. Sandro Corderoren zuzendaritzapean, Laura Orduña, Cristina Lorenzo, Bea Canteli eta Concha Rodriguez antzezleak ekaitzgau batean, Nazaria Alba Montenegroren senarraren gaubeilan elkartu diren lau atsoren azalean sartuko dira. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Eskolarteko bakailao txapelketarako izen-ematea

S.H. XXII. Eskolarteko bakailao lehiaketa egingo dute azaroaren 14an Errebalen. Eibarko hiru ikastetxeetako DBHko ikasleek parte hartu ahal izango dute; bi kategoria egongo dira, eta bakoitzeko bikote irabazleak 250 euro eta garaikurra jasoko ditu. Izen-ematea azaroaren 1etik 10era egin beharko da, online, Udalaren webguneko formularioa beteta.

Gau Beltza ospatzeko kontzertua



S.H. Bittor Sarasketa kalean dagoen Zai-zoi tabernakoek musikarekin ospatuko dute Gau Beltza bihar, zapatua. Iluntzeko 20:00etatik aurrera Zapatu Beltza taldekoak arituko dira, Black Sabbath taldearen kantuak zuzenean eskaintzen. Kontzertua amaitu ondoren, DJ Jasonen txanda izango da.

SUDOKUA

ERRAZAGOA

		6	3		1		4	2
			9		5	1	6	
		3				7		
		2			4		8	
3								7
	8		2			5		
		1				3		
	5	9	1		3			
7	3		4		9	6		

7	3	8	4	2	9	6	1	5
4	5	9	1	6	3	2	7	8
2	6	1	7	5	8	3	9	4
9	8	4	2	1	7	5	3	6
3	1	5	8	9	6	4	2	7
6	7	2	5	3	4	9	8	1
1	4	3	6	8	2	7	5	9
8	2	7	9	4	5	1	6	3
5	9	6	3	7	1	8	4	2

2	8	4	6	3	9	1	7	5
6	1	7	4	2	5	9	8	3
9	5	3	1	8	7	2	6	4
1	6	2	3	7	4	8	5	9
3	4	9	8	5	1	7	2	6
5	7	8	2	9	6	4	3	1
7	9	1	5	6	2	3	4	8
8	2	5	9	4	3	6	1	7
4	3	6	7	1	8	5	9	2

ZAILAGOA

	3	6	7				9	2
8					3			7
	9			6		3		
	7			9				
3								6
				7			5	
		3		8			6	
6			4					3
2	8				9	1	7	

LETRA-ZOPA

J	K	A	A	E	J	X	T	I	E	R
L	O	G	H	P	H	Z	T	K	N	I
O	N	E	O	D	G	D	H	P	T	P
R	T	R	T	J	O	P	N	M	S	E
K	Z	T	S	A	S	I	K	H	E	R
E	E	O	A	T	B	I	N	F	G	R
S	R	K	S	Z	I	E	R	U	U	I
T	T	I	K	I	E	Z	S	A	A	T
R	U	A	K	M	P	U	B	T	I	M
A	A	M	E	L	O	D	I	A	I	O
F	L	M	P	M	U	S	I	K	A	A

KONTZERTUA
MUSIKA
AGERTOKIA
ERRITMOA
ORKESTRA
DOINUA
ABESTIA
AHOTSA
ENTSEGUA
MELODIA



Urriak 30 / Azaroak 5

BARIXAKUA 30

BARIXAKUAK JOLASIAN
17:00 Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzako doako egitasmoa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Torrekua.

ERDI AROKO AZOKA
11:00 / 22:00 Erdi Aroko Azoka Xacobea: salmenta-postuak, erakusketa-tailerrak, musika, kaleko ikuskizunak, queimada... Untzaga.

GAU BELTZA
19:30 Gau Beltza dantza ikuskizuna, Eibarko Udal Dantza Eskolako irakasle eta ikasleen eskutik. Errebal Plazia.

KOMEDIA FEST
20:30 "Pan de gambas. El show" umorezko ikuskizuna, Agustin Jimenez eta David Puertoren eskutik. 22 euro (20 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Uni Eibar-Ermua.

ZAPATUA 31

IKASTAROA
10:00/12:00 Oinarrizko klown ikastaroa. Ipuruako Merkatu Plaza.

ERDI AROKO AZOKA
10:00/22:00 Erdi Aroko Azoka Xacobea: salmenta-postuak, erakusketa-tailerrak, musika, kaleko ikuskizunak, queimada... Untzaga.

ZAPATUKO IPUINA
12:00 "Itsasoaren berbak" bost urtetik gorakoentzako ipuin-kontaketa, Ana Meaberen eskutik. Doan (aurretik izena eman behar da). Portalea (areto nagusia).

ASANBLADA
12:00 Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak deituta, azaroaren 11ko greba antolatzeko. Txaltxa Zelaiko harmailak.

BERTSOLARITZA
17:00 Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoa. Bertsolariak: Alaia Martin, Asier Azpiroz, Miren Artetxe, Nerea Elustondo, Nerea Ibarzabal eta Oihana Iguaran. Ipurua kiroldegia.



GAU BELTZA
19:00/00:00 Beldurrezko esperientzia, Basque Horroren eskutik, eta Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Doan. Eibar BHI Itzio.

MUSIKA
20:00 Zapatu Beltza eta DJ Jason. Zai-zoi taberna.

DOMEKA 1

ERDI AROKO AZOKA
11:00/21:00 Erdi Aroko Azoka Xacobea: salmenta-postuak, erakusketa-tailerrak, musika, kaleko ikuskizunak, queimada... Untzaga.

ANTZERKIA
19:00 "Atra Bilis" (Hilo Producciones). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ASTELEHENA 2

KANTU-SAIOA
19:00/21:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkartea.

FILM LABURREN JAIALDIA
19:30 XXVII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa. Doan. Coliseo.

MARTITZENA 3

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN
19:00 Euskarazko irakurketa kluba: Laura Mintegiren "Akabo" liburuari buruzko saioa, Ainhoa Aldazabalek zuzenduta. Doan. Antolatzaileak: Juan San Martin Udal Liburutegia eta ...eta kitto! Euskara Elkartea. Portalea (Batzartoki 1).



FILM LABURREN JAIALDIA
19:30 XXVII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa. Doan. Coliseo.

EGUAZTENA 4

AGURTZEN
18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

FILM LABURREN JAIALDIA
19:30 XXVII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa. Doan. Coliseo.

EGUENA 5

FILM LABURREN JAIALDIA
19:30 XXVII. Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdia. Lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa. Doan. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Urriaren 30era arte
Izan Inurri elkartearen "(min)bizi euskal kultura eta feminismotik, minbiziaren imajinario kolektiboa eraldatuz". Andretxea.

Urriaren 30etik azaroaren 29ra
Indalecio Ojanguren XXXIX. argazki lehiaketa. Saritutako argazkiak eta edizio honetako parte-hartzaileen selekzioa. Portalea (erakusketa aretoa).

Urriaren 31tik azaroaren 29ra
"Material Emozionala", Vanessa Atecaren pinturalana. Portalea (erakusketa aretoa).

Azaroaren 8ra arte
Isa Martinen erakusketa. Topaleku.

Urtarrilaren 10era arte
Industria, berrikuntza eta mugimendua", G.A.C. enpresaren mendeurrenean. Armagintzaren Museoa.

ZINEA **COLISEO**



"Wicker"
KOMEDIA.FANTASIA

2026 / Erresuma Batua / 105'
Zuzendaria: Alex Huston Fischer, Eleanor Wilson
Aktoreak: Olivia Colman, Alexander Skarsgård, Peter Dinklage
Landa-bizitza

1 ARETOA
- **31an :** **17:00**
- **1ean :** **17:00**

2 ARETOA
- **2an :** **19:30**

ANTZOKIA
- **31an :** **19:45, 22:30**



"Lucky Strike"
BELIKOA. DRAMA

2026 / AEB / 102'
Zuzendaria: Rod Lurie
Aktoreak: Scott Eastwood, Colin Hanks, Aunjanue Ellis-Taylor
II. Mundu Gerra. Biziraupena Benetako gertaeretan oinarritua.

1 ARETOA
- **31an :** **19:45, 22:30**
- **1ean :** **20:00**
- **2an :** **19:30**



"Nuda propiedad"
KOMEDIA. DRAMA. THRILLER

2026 / Espainia / 99'
Zuzendaria: Alberto Utrera
Aktoreak: Susana Abaitua, Maxi Iglesias, David Lorente
Komedia beltza

2 ARETOA
- **31an :** **17:00, 19:45, 22:30**
- **1ean :** **20:00**



"Dino familia" (euskaraz)
ANIMAZIOA. HAURRAK

2025 / Errusia / 80'
Zuzendaria: Maya Turkina, Maksim Volkov
Dinosauroak. Sugeak. Aitatasuna.

ANTZOKIA
- **31an :** **17:00**

2 ARETOA
- **1ean :** **17:00**

Roberto Magunacelaya De la Cruz

2. URTEURRENA
2024/10/31



Beti egongo zara gurekin.
Maite zaitugu.

- ZURE FAMILIA -



8. URTEURRENA
2018/11/03

JOSE MARIA LARREATEGI "TXOPEN"

JERONIMA MANDIOLA BILBAO



9. URTEURRENA
2017/07/13

"Zuek biok eskainitako maitasunarekin gelditzen gara. Beti gogoan izango zaituztegu"

- ETXEKOAK -



www.etakitto.eus
zorion-agurrak

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: FORMULARIO bat betetzea ETAKITTO.EUS webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezkete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **ENEKO**! Azaroan 2an 11 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta Ibaien partez.



Zorionak **LUKA**, mutil haundi! Bixar, hillak 31, 8 urte eder betetzen dozuz eta. Jarraittu bizipoza edukitzen! Etxekuok asko maite zaittugu!



Zorionak **MIKEL**! 10 urte! Asko maite zaittugu. Bizitzaz gozatu maitxia. Besarkada haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **AMAMA**! Ospatu ondo zure eguna. Maite zaittugu.

Mª Angeles
Arrieta Murgoitio

13. URTEURRENA
2013/10/25

Hamairu urte badira ere gure aldetik joan zarela...
EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA"

- Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba -



FUNEUSKADI
FUNERARIA MUGICA



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Elgoibar:
Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerrien ondoan)

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
2.1. Salgai

3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko

4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.2. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. Edozein ordu eta egunetan. 642829497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioa eta esperientziarekin. 641955434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Astelehenetik ostiralera goizez. 614603605.
- Emakumea eskaintzen da aste barruan garbiketa lanak egiteko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614464957.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lanetan orduka lan egiteko. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 624418937.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko, eta baita haurren zaintzarako ere. Aste barruan eta asteburuetan orduka edo interna moduan. Titulu soziosanitarioarekin. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko (gauez). Astelehenetik zapatura (goizez). 6506906729. Sandra.
- Emakumea eskaintzen da zaintza lan puntalak egiteko, garbiketa lanetarako, eroskatak egiteko edo etxetik irten ezin direnei laguntzeko. Auto propioa daukat, ospitalera eramateko. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka astelehenetik ostiralera. Baita gauez ere etxe zein ospitaletan. 641692366.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldez, gauez edota asteburuetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631593925.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako, orduka, asteburuetan soilik. 12:30etik 16:30era. 613287661,
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erabateko disponibilitatea. 623968621. Rosa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan edo orduka. Etxeetan edo ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 605555578.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna moduan edo orduka. Etxeetan edo ospitaletan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 645261105.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxeetan edota ospitaletan, ziurtagiri soziosanitarioarekin. Baita garbiketa lanetarako ere. 667060292.

4.2. Langile bila

- Administraria behar da 5 orduko jardunaldirako Eibarko enpresa batean. Bidali curriculuma: comercial@casarsistemas.com.
- Auxiliar/higienista behar dugu Ermuko hortz klinika batean urriaren amaieratik ekainaren erdialdera arte lanaldi osoan amatasun baimen bat ordezkatzeko. Bidali kurrikuluma niklinika@gmail.com helbide elektronikora.
- Beleko tabernan zerbitzari bila gabiltza. Gurekin lan egin nahi baduzu, idatzi belekoeibar24@gmail.com helbidera.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertsitate ikaslea naiz eta edozein lan egiteko prest nago. 688605585.
- Lehen Hezkuntzako Graduko ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko eta Lehen Hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko. Arduratsua eta pazientziaduna. 699913163.
- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

5.3. Eskaerak

- Irakaslea behar da Batxilergo 1-eko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako klaseak etxean emateko. 636686040.
- Euskara irakaslea behar da DBH 3ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. 65373 5874, 13:00etatik aurrera deitu.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Umeak eramateko City Mini markako aulkia salgai. 4 erroberaduna. Poltsa eramatekoa barne. 85 euro. 650113060.

Eibarko **PROFESIO LIBERALAK**

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE
Fermin Calbeton 4, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE
Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.com
consultores@gaurve.es

GESTILAN
Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



EIBAR ◆ HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL



FAMILIA OSOA
zaintzen dugu

San Agustin Kalea, 4 behea ezkerra (Eibar) 943 537 076 · 688 884 808

eibarclinicadental.com

R.P.S. 79/25 MAITANE G. IÑIGUEZ . ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA